



## MATERIAL-XURGATZAILEAK – produktu berrerabilgarriak

Maila aurreratua

Prozedura ireki bidez eta lehiaketagatiko  
esleipen bidez kontratatzeko ingurumen irizpideak

### 1. Kontratuaren xedea eta zehaztapenak

#### 1.1. Kontratuaren xedea

##### 1. Koadroa

Kontratu honen xedea da, ingurumen-kalitateari dagokionez, gutxieneko irizpideak betetzen dituzten eta berriz erabil daitezkeen material xurgatzaileak erostea.

#### 1.2. Esleipen-irizpideetan bete beharreko zehaztapen teknikoak eta zehaztapen baloragarriak

##### 1.2.1. Produktuentzako ingurumen-irizpideak

##### 2. Koadroa

- Berriz erabil daitezkeen material xurgatzaileek irizpide hauek bete behar dituzte:
  - % 50ean, gutxienez, zuntz naturalez eginak egon behar dute (kotoia, kalamua...).
  - Ezin dute formaldehido libre eta zati batean hidrolizagarriaren 75 ppm baino gehiago eduki amaierako ehunean (ISO 14184-1 arauaren edo beste arau baliokide baten arabera).
  - Ezin dute distira-emaile optikorik eduki.

##### Aintzat hartuko da:

- Nekazaritza ekologikoko zuntz naturalez egindako produktuaren portzentajea pisuan, estandar hauen arabera: Europako Batasuneko 2092/91 zk.-dun EEE araudia (2008ko abenduaren 31 arte) eta 834/2007 zk.-dun EEE araudia (2009ko urtarrilaren 1etik aurrera), AEBko Nekazaritza Saila-USDarenak (*National Organic Program*-en arabera) edo nazioarteko IFOAM erakundearena edo horren baliokideena.
- Eskaintzen den produktuan, Oekotex 100 ziurtagirian amaierako produktuko

substantziei buruzko eskakizunak betetzen dituzten zuntzen %, pisuan.

- Produktua ez zuritzea, eta zuritzen bada, klororik (TCF) gabeko zuritze-prozesu batekin egitea.

### 3. Koadroa

Ezaugarri hauek ere baloratuko dira:

- Material xurgatzailearen estalkia plastiko halogenatuekin egina ez egotea.
- Produktuak gehiagotan garbitzeko aukera eskaintzea.

### 4. Koadroa

Enbalajeari dagokionez, puntu hauek baloratuko dira:

- Produktua banaka ez enbalatzea.
- Plastikozko enbalajeak plastiko halogenaturik ez edukitzea.
- Enbalajeak duen materia birziklatuaren portzentajea.

## 2. Gauzatze-irizpideak

### 5. Koadroa

- Enpresa esleitzzaileak produktuen erabilera- eta garbiketa-jarraibideak eman behar ditu kontratuaren hasieran, esleipendunak behar bezala erabil ditzan.
- [Beste produkturik badago, eta produktu guztiak baldintza beretan garbitu ahal izatea nahi bada, garbitzeko gehieneko tenperaturari eta abarrei dagokienez produktuek bete beharreko gutxieneko ezaugarriak zehaztu behar dira zehaztapan teknikoetan].

## 3. Esleipen-irizpideak

Esleipen-irizpideetan xehetasunez azaldu behar da elementu baloragarri bakoitzari emango zaion garrantzia, adibidez:

### 6. Koadroa

- Produktuaren ingurumen-hobekuntzak, % 20raino:
  - Produktuak dituen nekazaritza ekologikoko zuntzen portzentajea,

- %6raino.
  - Amaierako produktuko substantziei buruzko irizpideak betetzen dituzten zuntzen portzentajea, Oekotex 100 estandarraren arabera, % 6raino.
  - Iraungarritasun handiagoa, % 4raino.
  - Zuritu gabeko artikulua, edo TCF zuritze-prozesua duena, % 2.
  - Plastiko halogenaturik gabeko estalkia, % 2.
- Enbalajeetako ingurumen-hobekuntzak , % 5raino:
- Banakakoak ez diren enbalajeak, % 2.
  - Plastiko halogenaturik gabeko enbalajeak, % 1,5.
  - Enbalajeak duen birziklatutako zuntzen portzentajea, % 1,5.

Produktu bakarra erosten bada, zuzenean ezarriko dira irizpideak; kontratuan produktu bat baino gehiago badaude, ordea, irizpide baloragarriak produktu bakoitzaren arabera izango dira, eta mota ezberdinetako produktuen zenbateko osoari (kopurua) egokitu beharko zaizkio. Irizpidea edozein delarik ere, baldintza-orrian zehaztu behar da.

#### 4. Eskaintza teknikoaren edukia: eskaintza-aurkezpena

Eskaintzen eta aurkeztutako agirien ebaluazioa errazteko, agiriak aurkezteko modu jakin bat eskatu behar da baldintza-agirian. Informazio hori eskaintza-deialdian zehaztu behar da, eskaintzaileek garaiz izan dezaten.

#### 7. Koadroa

**Eskaintzen den produktu bakoitzarentzat dokumentazio hau aurkeztu behar da, honela:**

- a. **Produktuaren berriazko baldintzen fitxa** (1. eranskina)<sup>1</sup>, behar bezala beteta, sinatuta eta zigilatuta. Horrekin batera gratatuta, nahitaezko irizpideak eta irizpide baloragarriak (eskaintzaileak hartutako konpromisoak) bermatzen dituzten egiaztagiria guztiak aurkeztu behar dira.
- b. [Garrantzitsua dela uste bada] **Produktuaren erakusgarria**.

<sup>1</sup> Ikus 1. eranskina kapitulu honetako "Hornitzaileentzako egiaztapen - zerreenda" atalean.